

1\_ Ekitaldi hasi da BILDUKo zinegotzi den Koldo Zabalaren eskurtik, batzarrera udalaren ordezkarietan bertaratu diren pertsonak aurkeztuta. Ondoren, azaldu du batzarrak edukiko duen egitura: , lehenik Gobernu Taldeak udalerraren egungo egoeraren azalpena egingo du eta gero txanda emango zaie auzokideei, bilera honetan tratatzen diren zonaldeei dagozkien egoki irizitako gauzak eta gaiak azaltzeko; horiei saiatuko dira erantzuna ematen, azkenik, Gobernu Taldea eta udal teknikariak. Era berean, segidan igaro da batzarreko gai-zerrenda ipatzera:

2\_ Obra eta Zerbitzuen Foru Plana:

- Geltokia-Tunela-Maestro Elorza
- Lamuza parkea.

3\_ Telefonica eraikineko antena.

4\_ Audio Udalaren web berria:

5\_ Enpresa mintegia

6\_ Zabor organikoaren bilketa.

7\_ Auzora igotzeko igogailua eta eskailerak.

8\_ Jesus Guridi Plaza.

2\_ Obra eta Zerbitzuen Foru Plana: Bi obralan esleitzen dira, gehienez ere, Arabako udalerrri bakoitzeko. Laudion:

Irisgarritasuna geltokira-tunela- Maestro Elorza: , une honetan geltokiaren inguruan lanean ari da. Urtarrilan hasiko da tuneleko obralana, 2,5 metro izatek 7 metro izatera pasatuko dena. Azpiko pasabidea edo tunela itxita egongo da 3-4 hilabete inguru. Tuneleko obralana bi fasetan egingo da, burdinbideko trenen zirkulazioarekin jarraitu ahal izateko. Guzti hori Adif-en arduradunek koordinatzen ari dira.

- Lamuza parkea: Planean sartu da Aldaiko erreka saneamendua eta oinarriko azpiegiturak berritzea. Obralan hori amaitu litzateke Zubiko-Kurajo aldeko saneamendua berritzearen batera. Udalak ordaintzen du obralanaren %80-90a.

•

3\_ Telefonica eraikineko antena. ,Ez ohiko batzar baten deialdi egin zen jada, gaia nola zihoan azaltzeko. Herriko Etxearen asmoa bazen antena ixtea, izan ere aho batez onartutako udal ordenantza batek 2 urteko epea ematen zion Telefonicari herrigunetik antena kentzeko eta beste leku batera eramateko. Telefonikak ez duenez kasurik ere ez egin, ixteko agindu bat bidali zitzaion. Telefonikak aurkeztu du berriro aztertze errekurtsoa eta auzitegiak kautelazko neurriak onartu eta eman dizkio. Beraz, harik eta behin betiko ebazpenik ez dagoen bitartean, ezin dateke horretaz ezer egin. Kasua bada, epaitegiak arrazoia ematen diola Telefonicar, Audio Udalak epairi helegitea aurkeztuko dio; beraz, soluzioa ikusten epe luzera begira.

4\_ Audio Udalaren web berria: Ezagutzera ematen ari da web orri berria, urtarrilatik aurrera martxan egongo dena. Helburua bada Herriko Etxea eta udala herritararenganako hurbilagoa egitea, [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus), web berri honek baditu gauza berri ugari, hala nola iradokizunen postontzia, bere baitan eta bere bitartez kontsultak egin ahal izateko aukera, e.a.

9\_ Enpresa mintegia: Dagoeneko inauguratu da Arzan. 9 lokal prestatu eta gaitu dira beraien enpresa propioa sortzeko asmoa duten pertsonak, hori egin ahal dezaten ahalik eta arazo eta eragozpen gutxien tarteko direla. Inbertsioa izan da 90.000 euro eta alokairuaren prezioa egongo da 150 euroren inguruan.

6\_ Zabor organikoaren bilketa: , Aiarako Eskualdeak bultzatu du zabor bilketa sistema hori. Badatza banatzean kita (500 euskalde osoan), zein batzan “minikonpostailu” otzara batean, poltsa

biodegradagarriak diren paketearekin eta edukiontzia zabaldu eta ixteko giltza batekin eta bertan uzteko zabor organikoaren aipatu den poltsa hori. Auzoetan informazio kanpaina bat egin zen eta beste bat egingo berriro ere sistema horretaz herritarrei informazio emateko.

7\_ Auzora igotzeko igogailua eta eskailerak: , denbora aldi batean geldituta egon da. Sistema guztia aldatu behar izan dute eta aurreikusita dago jada buka eta amai dezatela lan hori. Matxura nahikoa garrantzitsua izan da eta horregatik berandutza konpontzean. Eskaileretan matxura berri-emateak eta gora beherak nahikoa jaitsi dira eta hori da gelditzeko botoia aldatu egin delako.

8\_ Jesus Guridi Plaza: , konponketaren bat egin da eta teknikariak aztertzen ari dira aurreko batzarretan-eta auzokoek jada eskatuta duten pasabide bat egiteko aukerarik dagoen.

Parte hartzeen txanda hasi da:

Hainbat auzoko kexatzen dira kamioien joan-etorriagatik eskoletako zonatik Arijako areaz zamatuta.

Baderitzote hori arriskutsua dela eta aukerako ibilbide alternatiboa prestatu beharko litzatekeela etxebizitzaren eta eskoletako zonatik ez daitezen pasa.

Halaber, eskatu du baranda bat ipintzea azpiko pasabidea edo tuneleko obralana dela-eta orain erabiliko den eskaileraren erdian.

Beste auzoko batek aipatu du tuneleko eskaileraren zonako argiketeria. Baderitzo zona badagoela oso ilun.

Aldi berean, kexatzen da zona horretan bertan gabonetako argiketa eskasaz, izan ere zona hori askozaz ere trantsitu handiagokoa izanik, gabonetako apaingarriak goiko aldean baino gutxiako baitira.

Koldo Zabala.

- Aukerako ibilbide alternatibo bat jartzearen gaia (Amurrio aldera autobia edota saihezpideko irteera) Arabako Foru Aldundiaren eskumena da eta bideak elkarrekin gurutzatzeagatik arazoaren bat edo beste egongo litzatekeela. Aldundiak egin beharko luke inbertsio garrantzitsu hori.
- Zubiko-Kurajo arranpala eta tunelaren irisgarritasuna eta argiketa hobetuko da, eta arean gehiago kontuan edukita, hilabete hauetan zehar oso trantsitu handikoa izango dela beste tuneleko obralanengatik, izan ere auzoranzko bide nagusia izango baita.
- Gabonetako argiei dagokionez adierazi du xede horretarako egon den aurrekontuko diru sailarekin saiitzen dela gabonetako apaingarriak ipintzen auzo guztietan, baina ezin dela leku eta zona guztietan era berdinean jarri. Idatzizko oharra jasota geratzeko hartu da hori hobetzeko edo aldatzeko datorren urterako.
- Aztertuko da baranda ipintzearen posibilitatea eta informazioa eskainiko da Arijako area kamioiekin zer gertatzen ari den.

PSE-EE-ko zinegotzi den Txaro Sarasuak berriro ere nabarmendu du Zubiko-Kurajoko tuneleko irisgarritasuna hobetu beharra.

Auzoko bat kexatzen da zabor bilketa organikoaren kontendoreen ezerosotasunaz, eta, zehazki, kexatzen da Eskutxin jarritako kontenedoreaz; dio ezinezkoa dela hori zabaltzea eta zabaltzeko aldea errepide alderantz dagoela. Baita ere, kexatzen da auzoaren informaziorik ezaz, aipatu diren kontenedore horien erabilerari dagokionez.

Halaber, eskatu du espaloi bat jartzea edo ipintzea kanposantu ondoan dagoen lorategien alde batean. Koldo Zabala.

- Berriro egingo da auzoan informazio kanpaina bat. Auzo batzuetan emaitzak oso onak izaten ari dira (4,5 tona jaso egin direlarik); horregatik, informazio puntuen beste txanda bat egingo da, azalpenak

jasotzeko sistema hori zertan datzan eta nola erabili behar den hori. Kita banatzen ari da Audio Udalak Arzan daukan udal biltegian. Eskutxiko kontenedoreari dagokionez, argi dago txarto funtzionatzen ari dela edo dabilela. Eskatuko zaio Aiarako Kuadrilari konpon ditzaten aipatu den arazo hori.

Auzoko bat kexatzen da Latorrotik irteterakoan autobia edo saihepidera sartzeko bide-zatiaren egoeraz. Nahiz eta jada jakina den Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoa dela, berriro ere eskatu da errepideko zuloak eta sakon konpon ditzatela.

Koldo Zabala.

- AFAK dio Udalari dagokiola hori. 2015eko asfaltatze programan badago 150.000 euroko diru saila hiriko asfaltaturako; bide-zati hori hobarrietan sartuta zegoen (70.000 euro inguru), baina ekimen nagusia Gardeako errepidea (Irukurutzeta-Txirrita) eta hori da egingo dena. 2015erako lehentasunetarikoa bada zona horretan jardutea, baina diru saila ailegatu da iritsi deneraino eta saiatuko da egiten.

PSE-EE-ko zinegotzi den Txaro Sarasuak berriro ere nabarmendu du asfaltatzea egin behar zitekeela zehar ardatza eraiki zenean. Azaldu du berak errepideko bide-zati horretan eduki izan zuen gora behera bat. Dio ezen Udalak ez lukeela hori zertan planteatu behar hobetze legez, izan ere errepide hori asfaltatzea beharrian gorri bat baita, ez soilik Latorrorena, baizik eta Audiorena, alde horretan dagoen ibilgailuen bertatiko joan-etorriengatik.

Latorrondoko auzoko batek esan du alde horretan etxebizitza bati (Latorrondo 5) ura emateko tutua ipini aldean, bada, tutu hori estali zela behin behineko izaeraz argamasa edota kare-mortero apur batez eta horrela daramala 4-5 urte

Juan Fernando Etxebarri, udal teknikariak, adierazi du ezen erredaktatzen ari dela ura eta saneamenduaren tutueria ordezteko proiektu bat. Proiektua azkentzen ari da eta, finantzaketa bilatzen zaionean, aipatu den proiektu hori gauzatu edo egikaritu da.

Beste auzoko batek eskatu du Goikogane kalea norabide bakarrekoa egin dadila.

- Koldo Zabala.

Gai hau beste auzo batzar batzuetan ere irten da eta auzokoen artean ez dago adostasunik. Auzoaren gehiengoak baderitzo hori dela soluzioa, Udalak ez du inolako arazorik aukerarik dagoen aztertzeko, baina horretarako, lehenik, auzokoen arteko akordio bat egon behar da; izan ere, batzuek dioten zelaiak eta landak kentzeko, beste batzuek ezetz,... Auzokoen artean akordio bat dagokeenean, ez ohiko edo aparteko auzo batzar baterako deialdia egingo da gai hau tratatzeko. Soluzio bat izan ahal da aparkaleku plazak kentzea eta ipintze oinezkoen pasaleku bat ikusgarritasuna eta segurtasuna handiagoa izan dadin.

Beste auzoko batek aditzera eman du bera ez dagoela ados norabide bakarra ipintzearekin, izan ere, kasu horretan, autoak joango liratekeen askoz ere abiadura handiagoan, horrela arriskugarritasuna handituz.

Auzoko batek adierazi du gauza eta egikari dadila kirol kantza bat egitearen proiektua eta auzoari horrenbeste falta egiten zaizkion berdeguneak. Kirol kantza hori egitera zihoazela suposatzen den leku horretan, lur pilaketa bat utzi egin dute, erretiratzen ere amaitzen ez dutena.

Koldo Zabalak erantzun du ezen proiektu hori egiteko posibilitatea eta aukera dagoenean, orduan egingo dela.

EAJ-PNVko zinegotzi den Juanma Ibarretxek berba egin du Goikogane kalean norabide bakarraren gaiak eta azaldu ditu aukera horrek dituen gauza aldekoak eta aurkakoak.

Auzoko batek eskatu du auzorako leku estaliren bat, balio dezana hala udan zelan neguan ere. Halaber, baita ere, galdetu du ea berrikusiko den Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra.

Koldo Zabalak erantzun du auzo guztietan ikusten ari dela beharrezkotzat posibilitate hori. Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren gaiari erantzun dio ezen arkitektoa berraztertzen ari dela berrikusketa horretarako Pleguak eta ondoren horiek onartzera eramango direla.

Hainbat auzokok galdetu dute tunel berriaren erabileraz. Ea oinezkoena izango den ala autoak ere pasatuko diren. Koldo Zabalak erantzun du oinezkoen erabilerarakoa izango dela (herrigunean bizikleten erabilera ezarri eta erabakitzeko itxaroten ari dela gai honetan gauza berriak dakartzan Trafiko Erregelamenduaren azkeneko aldaketari).

Akenik, eskatu dute berriro hartzeko zentro zibikoa edo auzoko etxea egiteko proiektua herriko ekitaldi ezberdinei abaro eta abegi egiteko eta topagune eta elkargune leku bat edukitzeko. Koldo Zabalak erantzun du bere egunean egin zen proiektua bideraezina dela guztiz eta erabat eta aztertzen ari dela proiektu bat zeozer ez horren handiguratsua egiteko.

Eta beste gairik ez izanik tratatzeko, alkateak amaitutzat jo auzo batzarra, eskerrak emanez bertaratutako guztiei euren etorreragatik, goian adierazita dagoen eguneko 20:30 orenak izanik.